

Irakasleen 2025eko oposizioak		
Kidegoa edo lanpostua: Bigarren Hezkuntzako irakasleak - 590	Espezialitatea: NEKAZARITZAKO EKOIZPEN PROZESUAK	Hizkuntza: Euskara
A PROBA PRAKTIKOA - TEST A		

2025eko OPOSIZIOAK

ESPEZIALITATEA: NEKAZARITZAKO EKOIZPEN PROZESUAK

1. PROBA, A ZATIA JARRAIBIDEAK

PROBAK HONAKO HAUEK DITU: 50 GALDERAKO TESTA = 3,5 PUNTUKO BALIOA.

-
- IDENTIFIKATZEKO IRUDIAK = 3 PUNTUKO BALIOA
- 4 KASU PRAKTIKO = 3,5 PUNTUKO BALIOA

AZTERKETA EGITEKO DENBORA: 3 ordu.

OSO GARRANTZITSUA:
– Ez idatzi datu pertsonalik eta ez egin inolako markarik erantzunetatik kanpo erantzun-orrian. – Irakurri arretaz galderak, eta erantzun eskatzen zaionari soilik. – Azterketa hasi aurretik, egiaztatu bi koaderno dituzula: N orrialdeko enuntziatuen koaderno eta N orrialdeko erantzunen koaderno. – Mahai gainean, oposiziogileak NANA, kalkulagailu programa ezina eta bolaluma baizik ezin ditu izan. – Azterketa amaitzean, erantzunen koaderno eta enuntziatuen koaderno entregatu behar dira, orririk bereizi gabe.

1. PROBA: ERANTZUN ANITZEKO TESTA.

Galdera bakoitzean **erantzun zuzen bakar**ra dago. Idatz ezazu erantzun-orrian.

1. Ezaugarri hauetako zeinek definitzen du nekazari profesionala?
 - a. Denboraren % 50 baino gutxiago ematen du nekazaritza-jardueretan.
 - b. Guztizko errentaren % 50 baino gehiago nekazaritza-jardueretatik lortzen du.
 - c. Gutxienez, guztizko errentaren % 50 nekazaritza-jardueretatik eta beste jarduera osagarri batzuetatik lortzen du.
 - d. Lanaldiaren bosten batetik erdira bitarte ematen du nekazaritza-jardueretan.
2. Non jarri behar dira karraskariak harrapatzeko jakiak eta tranpak abeltzaintza-ustiategi batean?
 - a. Oso argizatuta dauden eremuetan.
 - b. Edateko uretik hurbil.
 - c. Eremu ilunetan.
 - d. Sabaian.
3. Zer izen du izurrite-populazioak atalase ekonomikoaren azpitik mantentzeko erabiltzen diren metodoen multzoak?
 - a. Borroka sistematikoa
 - b. Kontrol biologikoa
 - c. Landare-babesa
 - d. Borroka integratua
4. Zein organismok eragiten du su-gorrina?
 - a. *Erwinia amylovora*
 - b. *Pseudomonas syringae*
 - c. *Agrobacterium tumefaciens*
 - d. *Xanthomonas campestris*
5. Zer ari da gertatzen irudian, eta zein organismok eragiten du?
 - a. Onddo entomopatogeno batek eraso dio beldarrari, eta fruitu-gorputz ikusgarriak sortu ditu.
 - b. Hiperparasito baten larbak dira: beldarraren barnean beste parasito batzuez elikatzen dira.
 - c. *Cotesia glomerata* espeziearen larbak dira. Liztor parasitoide bat da, eta beldarraren barnean garatu ondoren kanpora ateratzen da.
 - d. Beldarra azala berritzen ari da, pupa-fasera iragateko.



6. Zer ezberdintasun dago parasito baten eta parasitoide baten artean?
- a. Parasitoak beti hiltzen du ostalaria berehala, eta parasitoideak, berriz, inoiz ez.
 - b. Parasitoideak hainbat ostalari behar ditu bere bizitzan, eta parasitoak, berriz, bakarra.
 - c. Parasitoak ez du ostalaria hiltzen gehienetan, eta parasitoak, berriz, garapena burutzean hil egiten du.
 - d. Ez dago inolako ezberdintasunik: bi terminoek esanahi bera dute.
7. Ureztatze lokalizatuaz gain, zein beste ureztatze-modalitatetan aplika daiteke fertirrigazioa, efizientzia bermatuta?
- a. Lurpeko tantakako ureztapena.
 - b. Aspertsiozko ureztapena.
 - c. Ildo bidezko ureztapena.
 - d. Uholde bidezko ureztapena.
8. Zer da ur erabilgarriaren erreserba?
- a. Eremu-kapazitatearen eta zimeldura-puntuaren arteko ura.
 - b. Lurzoruaren sakonean eskura dagoen ura, sustraiek xurgatzen dutena.
 - c. Ureztatze sistemaren bidez aplikatu beharreko ur kopurua.
 - d. Lurzoruan eremu-kapazitatearen azpitik dagoen ura.
9. Zein ongarri mota gomendatzen da lurzoru hareatsuetan?
- a. Uretan disolbatzen diren ongarriak.
 - b. Ongarri organikoak soilik.
 - c. Eragin azkarreko ongarriak.
 - d. Askapen geldoko ongarriak.
10. Zer labore motatarako da bereziki gomendagarria zohikatz edo turba gorria?
- a. Uretako landareak
 - b. Landare apaingarriak eta plantulak ekoizteko
 - c. Zereal-laboreak
 - d. Lurzoru alkalinoetako laboreak.
11. Plano topografiko bateko edozein puntutatik gezi bat marrazten badugu, bide laburrenari jarraituz, kota txikiagoa duen eta hurbilen dagoen sestra-kurbaraino, zer ari gara trazatzen?
- a. Isurialdeen banalerro bat.
 - b. Jariatze-uren lerro bat.
 - c. Muino bat.
 - d. Mendi-bizkar bat.

12. Zer sortzen da cambium-etik?

- a. Floema-zelulak kanpoalderantz.
- b. Xilema-zelulak barnealderantz.
- c. Floema-zelulak barnealderantz, eta xilema-zelulak kanpoalderantz.
- d. a eta b zuzenak dira.

13. Zer da zuraren higroskopikotasuna?

- a. Zurak ingurunetik hezetasuna xurgatzeko duen gaitasuna.
- b. Zurak ingurunera hezetasuna askatzeko duen gaitasuna.
- c. Zurak ingurunetik hezetasuna xurgatzeko eta ingurunera hezetasuna askatzeko duen gaitasuna.
- d. Zurean dauden eta urez bete daitezkeen aire-poroen kopurua.

14. Zer da karpoforoa?

- a. Onddo baten fruitu-gorputza.
- b. Onddo baten lurpeko zatia.
- c. Horrela esaten zaie onddo mikorrizikoei.
- d. Ziza baten txapela estaltzen duen azala.

15. Noiz edo non gertatzen dira adbekzio-izozteak?

- a. Aire hotzeko masak, normalean polarrak, eremu batean sartzen direnean.
- b. Landareen gainean jalkitako ihintza lurruntzen denean, prozesu horretan beroa xurgatzen baita landaretik.
- c. Udaberrian, atmosferaren beheko geruzak hoztearen ondorioz.
- d. Eremu alpetarretan soilik.

16. Zenbaitetan, lehenago basoak zituzten eremuetan bestelako basoak ezartzen dira modu artifizialean, eta, horrela, aurretiko masaren ordeztasun bat ezartzen da, ekoizpen desberdina duena. Nola esaten zaio prozesu horri?

- a. Baso-sartzea.(Forestación)
- b. Basoberritzea. (Reforestación)
- c. Berroihantzea.
- d. Basoen eta hidrologiaren leheneratzea.

17. Antolatutako mendi orok kudeaketa-tresna bat izan behar du indarrean, eta oinarritzko printzipio hauek bete behar ditu:

- a. Iraunkortasun-printzipioa, gehieneko errendimenduaren printzipioa eta errenten erregulartasunaren printzipioa.
- b. Egonkortasun-printzipioa, errendimendu jarraituaren printzipioa eta erabilera publikoaren printzipioa.
- c. Printzipio biologikoa, printzipio ekologikoa eta printzipio soziala.
- d. Antolaketa-printzipioa, iraunkortasun-printzipioa eta funtzio anitzeko printzipioa.

18. Masaren forma nagusiak honela sailkatzen dira:
- Baso garaia, basobera eta baso ertaina.
 - Masa adinkidea, masa erregularra, masa erdierregularra eta masa irregularra.
 - Erreserba duten masak, azpiko maila duten masak eta hainbat maila dituzten masak.
 - Baso sakabanatua, birpopulatua, baso zakarra, haga-basoa (latizal) eta tantai-basoa (fustal).
19. Zein prozeduraren bidez adjudikatu daiteke egur- eta zur-aprobetxamendu bat Nafarroan?
- Oro har, enkante publiko bidez, baina kasu jakin batzuetan lehiaketa edo zuzeneko adjudikazioa egin daiteke.
 - Oro har, lehiaketa bidez, baina kasu jakin batzuetan enkante publikoa edo zuzeneko adjudikazioa egin daiteke.
 - Oro har, zuzeneko adjudikazioaren bidez, baina kasu batzuetan enkante publikoa edo lehiaketa egin daiteke.
 - Enkante publiko bidez egin behar da beti.
20. Trofeoa baloratu nahi bada, espezie hauetatik zein sartu behar da uretan, bolumena neurtzeko?
- Oreina.
 - Orkatza.
 - Basurdea.
 - Zerbido guztiak.
21. Irudiko elementua arrain-populazioak kudeatzeko erabiltzen da. Zer da?
- Arrantza elektrikorako anodoa.
 - Arrantza elektrikorako katodoa.
 - Arrain-haztegi-tako arrain sorten diametroen hautatzailea.
 - Izokinen mikrotxipen detektagailua.



22. Eperren zenbaketa egiteko, laginketa-lurzati bat miatu dugu 2 km-ko ibilbide batean, eta 200 m-ko zabalera kontuan hartuta (445 bat erregu-lur). 4 eper-bikote zenbatu baditugu, zer dentsitate dago laginketa-unitate horretan, indibiduo/Ha-tan?
- a. 0,2 eper hektareako.
 - b. 0,1 eper hektareako.
 - c. 0,1 eper erregu-lur bakoitzeko.
 - d. 10 eper hektareako.
23. Zenbat pertsona jarri behar dira lerroan uxaldi bat egiteko, 200 metroko zabalera estali nahi bada eta haien arteko distantziak 50 metrokoa izan behar badu?
- a. 4.
 - b. 5.
 - c. 10.
 - d. Berdin dio.
24. Zer titulu behar da Nafarroan ehiza antolatzeke plan bat egiteko?
- e. Nafarroako ehizazainaren titulua eta egiaztagiria.
 - f. Basoaren eta Natur Ingurunearen Kudeaketako goi-mailako teknikariaren titulua.
 - g. Basafaunarekin loturiko gaietako unibertsitate-titulua.
 - h. Landazainaren titulua eta egiaztagiria, Barne Ministerioak (Guardia Zibila) emana.
25. Zer esan nahi du kartutxo bat 12 kalibrekoa izateak?
- a. Diseinatuta dagoela 12 mm-ko barne-diametroko kanoia duten eskopetetan erabiltzeko.
 - b. Diseinatuta dagoela 0,12 hazbeteko barne-diametroko kanoia duten eskopetetan erabiltzeko.
 - c. Diseinatuta dagoela honako honen berdina den barne-diametroko kanoia duten eskopetetan erabiltzeko: berunezko libra batetik ateratzen diren 12 esfera berdinetako bakoitzaren diametroa.
 - d. Gutxienez 12 perdigoi dituela barnean.
26. Ingurumen-inpaktuaren balorazioa. Garrantziaren matrizea edo inpaktuen matrizea:
- a. Hari esker, inpaktuak kuantitatiboki baloratu daitezke.
 - b. Matrize horrek metodo matematikoak erabiltzen ditu, unitate neurtezinak unitate neurgarri bilakatzeko.
 - c. Guztizko inpaktua da haren emaitza.
 - d. Bi sarrerako taula bat da: ekintzak ardatz batean agertzen dira, eta balizko inpaktua jasan dezaketen faktoreak, beste ardatzean.

27. Zeri esaten zaio tubex?

- a. Zuhaitzak kalteetatik babesteko sistema indibiduala.
- b. Kalteetatik babesteko sistema, metalezko tutu bati konektaturiko bateria bat duena eta labore gazteen inguruan jartzen dena.
- c. Eskopeta baten kanoiari ematen zaion lagunarteko izena.
- d. Kalteetatik babesteko sistema kimikoa, zuhaitz-landareen oinarrian substantzia uxagarriak jartzearen bidezkoa.

28. Zenbat BGL, KBE eta HBBE daude Nafarroako Natura 2000 Sarean? (BGL: Batasuneko garrantzizko lekua; KBE: kontserbazio bereziko eremua; HBBE: hegaztientzako babes bereziko eremua)

- a. 17 BGL eta 42 KBE
- b. 42 BGL eta 17 HBBE
- c. 17 HBBE eta 42 KBE
- d. 5 HBBE eta 17 BGL

29. Sute batean, beroa honela transmititu daiteke:

- a. Konbekzioz, erradiazioz eta eroapenez.
- b. Eroapenez, erradiazioz eta poluzioz.
- c. Konbekzioz, erradiazioz eta konexioz.
- d. Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

30. Hazien sorta edo lote baten balio erreala (VR) lortzeko, bi hauek biderkatu behar dira:

- a. Purutasuna eta ernetze-ahalmena.
- b. Pisua eta purutasuna.
- c. Pisua eta ernetze-ahalmena.
- d. Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

31. Zer ezaugarri dute bienala landareek neguko tenperatura baxuei dagokienez?

- a. Neguko tenperatura baxuak jasateko egokituta daude.
- b. Etengabeko beroa behar dute garatzeko.
- c. Ez dute hotza jasaten, eta neguan hil egiten dira.
- d. Urte osoan tenperatura altuak izatea nahiago dute.

32. Soropil bat erein ondoren, zertarako pasatzen da alper arina, haziak ernatu ondoren?

- a. Soropila (belarra) azkarrago hazteko.
- b. Finkatzea hobetzeko eta bigarren mailako zurtoinak hazteko.
- c. Lurzoruko hezetasun-maila txikitzeko.
- d. Hazien tamaina handitzeko.

33. Uraren kalitate txarraren ondorioz infiltrazio-arazoak daudenean, ureztatze-urari edo lurzoruari medeagarriak gehitu ohi zaizkio. Zertarako?
- Sodio-edukia handitzeko, uraren atxikipena hobetzeko.
 - Kaltzio-edukia handitzeko, RAS indizea txikitu eta gazitasuna handitzeko.
 - Lurzorua-ren pHa txikitze-ko, azidotasuna hobetzeko.
 - Lurzoruko gatzak kentzeko, gazitasuna txikitze-ko.
34. Zer da lanburda bat?
- Bi urte edo gehiagoko zura, bukaeran lore-begi bat duena.
 - Urteko zura, bukaeran lore-begi bat duena.
 - Bi urte edo gehiagoko zura, lore-begirik gabekoa.
 - Urteko zura, alboko lore-begiak dituen-a.
35. Berotegi bat hozteko, kanpoko airea sarrarazi daiteke, eta ur-gortina batean zehar pasarazi, airea hozteko. Nola esaten zaio sistema horri?
- Pooling system.
 - Cooling system.
 - Boo-ling system.
 - Sooling system.
36. Zer da siloratzea?
- Belarra segatu ondoren bazka lehorra kontserbatzea.
 - Bazka berdeak biltegi-ratzea hartzidura aerobioekin.
 - Bazka berdeak biltegi-ratzea hartzidura anaerobioekin.
 - Bazka pentsu bilakatzeko prozesua.
37. Osagai hauetako bat EZ dagokio erre-kuntza-motor baten elikatze-sistemari. Zein?
- Karterra.
 - Injekzio-ponpa.
 - Injektorea.
 - Erregai-iragazkia.
38. Funtzio hauetatik, zein dagokio errumenari?
- Proteinen digestio entzimatikoa.
 - Zelulosaren hartzidura mikrobianoa.
 - Mineralak eta bitaminak xurgatzea.
 - Digeritu gabeko elikagaiak gordetzea.

39. Pentsu kontzentratuari buruz, zer baieztapen da egia?

- a. Mantenugai eta gehigarri ugari ditu. Pentsu osoak prestatzeko erabiltzen da.
- b. Eguneroko produkzio-premiak asetzen ditu, eta adinaren eta produkzio-egoeraren arabera aldatzen dira.
- c. Fase jakin batean beharrezkoak diren elementuak ematen ditu.
- d. Helburu terapeutikoa edo estimulatzailea du.

40. Hegaztien kasuan:

- a. Eskuineko obulutegia espezie batzuetan baizik ez da garatzen, baina hari dagokion obiduktua, inoiz ez.
- b. Ezkerreko obulutegia espezie batzuetan baizik ez da garatzen, baina hari dagokion obiduktua, inoiz ez.
- c. Eskuineko obulutegia espezie batzuetan baizik ez da garatzen, baina hari dagokion obiduktua beti garatzen da.
- d. Eskuineko eta ezkerreko obulutegiak garatzen dira, baina obiduktu bakarra.

41. Epididimoari buruz, zer baieztapen da egia?

- a. Hor gordetzen eta heltzen dira espermatozoideak.
- b. Espermatozoideak uretrara bultzatzen ditu eiakulazioaren unean.
- c. Hartan, pHa igotzen da.
- d. Hegaztietan dago soilik.

42. Zein animalia dira sukar aftosoaren birusaren ostalari nagusiak?

- a. Basa-hegaztiak.
- b. Apatx arrailduak dituzten animaliak.
- c. Haragijale handiak.
- d. Etxeko hegaztiak.

43. Zein da masaje-fasearen funtzioa jetzi bitartean?

- a. Bakterio laktikoen edukia egonkortzea.
- b. Injekzio-erreflexua estimulatzea.
- c. Titiburua konprimatzea, zirkulazioa hobetzeko.
- d. Huts-maila egonkortzea.

44. Zer gertatzen da esnea 3 °C-tik behera hozten bada?

- a. Kalitate bakteriologikoa hobetzen da.
- b. Hartzidura errazten da.
- c. Prozesamenduan eragina duten aldaketa fisiko-kimikoak gertatzen dira.
- d. Ez da ezer garrantzitsurik gertatzen.

45. Zer da abere-zama?

- a. Azalera batean denbora-tarte jakin batean mantendu daitezkeen animalien kopurua.
- b. Animalia batek urte batean ekoizten duen haragi kopurua.
- c. Animalia batek egun batean kontsumitzen duen ur kopurua.
- d. Hilabetearen larre batean hazten den bazka kopurua.

46. Larba bat zikloaren hirugarren egunetik aurrera erregina-jelez elikatzen bada, zer bilakatuko da?

- a. Langile.
- b. Erlamando.
- c. Erregina.
- d. Errege.

47. Zein da stripping-aren helburu nagusia?

- a. Ilearen luzera berdintzea.
- b. Ile hilak errotik kentzea.
- c. Ilajeari bolumena ematea.
- d. Mantuaren kolorea argitzea

48. Baldintza hauetako zein bete behar da nahitaez oilo erruleen hazkuntza ekologikoan, Europako araudiari jarraikiz?

- a. Oiloak kaioretan egon daitezke, baldin eta ohatze organikoa badute eta ingurunea aberasten bazaie.
- b. Oiloek ur garbia eta elikagaiak eskura izan behar dituzte beti.
- c. Oiloek aukera eduki behar dute noiznahi aire zabalera ateratzeko, eta bakoitzak eskura eduki behar du gutxienez 4 m²-ko azalera, landarez estalia.
- d. 3.000 hegaztitik gorako sistemetan, mokoa moztan ahal zaie, prebentzio gisa, elkarri ez mokokatzeko.

49. Landare hauen artetik, zein da exotikoa edo inbaditzailea?

- a. *Quercus ilex*
- b. *Pinus halepensis*
- c. *Alianthus altissima*.
- d. *Juniperus communis*

50. Enborraren beheko herenean dauden adar hilak inaustea, adabegirik gabeko kalitatezko zura lortzeko. Nola esaten zaio horri?

- a. Txandakako eta aldizkako zerrendak inaustea.
- b. Xedarratzea edo soiltzea "escamonda"
- c. Bakanketa edo mehazketa
- d. Olibazioa

ERRESERBAKO GALDERAK.


1. Zer ibilbide homologatu seinaleztatzen dira zuriz eta berdez?
 - a. Ibilbide luzeak (GR)
 - b. Ibilbide laburrak (PR)
 - c. Tokiko ibilbideak (SL)
 - d. Kolore horiek ez dagozkio ibilbide homologatu bati.
2. Lan-prozedura normalizatu baten helburua da sua itzaltzeko eta suaren erabilera teknikoa egiteko oinarritzko segurtasun-protokoloa eskematizatzea. Zein da haren akronimoa (ingelesez eta gaztelaniaz)?
 - a. LACES/OACEL
 - b. HACES/ELADE
 - c. RACES/UADEL
 - d. FACES/RODEL
3. Arrautza batean inprimatutako lehen digitua 0 bada, zer esan nahi du?
 - a. Arrautza landako oiloarena dela.
 - b. Arrautza oilo ekologikoarena dela.
 - c. Arrautza ekoizpen intentsibokoa dela.
 - d. Arrautza zoru librean hazitako oiloarena dela.
4. Zein da animalia batengana hurbiltzeko modu zuzena?
 - a. Bizkarretik, zu ez ikusteko eta ez beldurtzeko.
 - b. Eskuinaldetik bakarrik, eta hitz eginez.
 - c. Aurrez aurre edo diagonalean, hitz eginez.
 - d. Korrika, ez beldurtzeko.
5. Zein da hidatidosiaren infestazio-bidea gizakian?
 - a. Sukaldean gutxi egindako haragia jatea, giharren artean kisteak daudenean.
 - b. Hidatidosia animalietan bakarrik agertzen da, txakurretan, adibidez.
 - c. "Eskua-ahoa" bidea: eskuetan dauden arrautzak irenstea, txakurrak ukitu ondoren edo txakurren gorotzekin kontaktua izan duten eremuak ukitu ondoren.
 - d. Kapar batek ziztatzea

Irakasleen 2025eko oposizioak		
Kidegoa edo lanpostua: Bigarren Hezkuntzako irakasleak - 590	Espezialitatea: NEKAZARITZAKO EKOIZPEN PROZESUAK	Hizkuntza: Euskara
PROBA PRAKTIKOA- A VISUA		


1. Esan zer gertatu den lehen iruditik bigarrenera




2. Fronte mota



3. Ugalketa begetatiboko teknikaren izena



4. Identifikatu txerto edo mentu mota



5. Identifikatu dasometria-tresna



6. Identifikatu hodei mota	7. Identifikatu aireko garraiobidea
8. Izen arrunta eta zientifikoa	9. Izen arrunta eta zientifikoa



10. Identifikatu tranpa



11. Izen arrunta eta zientifikoa



12. Izen arrunta eta zientifikoa



13. Izen arrunta eta zientifikoa



14. Izen arrunta eta zientifikoa



15. Izen arrunta eta zientifikoa



16. Izen arrunta eta zientifikoa



17. Izen arrunta eta zientifikoa



18. Identifikatu txakur-arraza:



19. Identifikatu dike mota




20. Identifikatu makina



21. Identifikatu bioingeniaritzako teknika




22. Izen arrunta eta zientifikoa




23. Izen arrunta eta zientifikoa



24. Identifikatu zuhaitz-masak berritzeko metodoa



25. Adierazi zer baso-tratamendu erabili den lehia dosifikatzeko



26. Izen arrunta eta zientifikoa



27. Izen arrunta eta zientifikoa



28. Izen arrunta eta zientifikoa



29. Izen arrunta eta zientifikoa



30. Izen arrunta eta zientifikoa



31. Izen arrunta eta zientifikoa




32. Adierazi zer jarduketa egin den suteak prebenitzeko:



Estado original de la masa



Después de la actuación



33. Izen arrunta eta zientifikoa



34. Izen arrunta eta zientifikoa



35. Izen arrunta eta zientifikoa



36. Motorraren zein zati ikusten da irudian?




37. Identifikatu makina:



38. Nola du izena laboreak babesteko eta behartzeko azpiegitura mota honek?



39. Zirkulazio atmosferikoa: zein hemisferiotan gaude?



40. Izen arrunta eta zientifikoa



Irakasleen 2025eko oposizioak		
Kidegoa edo lanpostua: Bigarren Hezkuntzako irakasleak - 590	Espezialitatea: NEKAZARITZAKO EKOIZPEN PROZESUAK	Hizkuntza: Euskara
PROBA PRAKTIKOA: ARIKETAK		

- Ebatzi ariketa hauek eta justifikatu erantzuna

1. ariketa

Izeiez osatutako baso irregular batek 360 ha ditu. Masa irregular gisa kudeatu nahi da, bakanketa edo entresaka erregularizatuaren metodoa erabiliz hura antolatzeko. Honako hauek betetzen direla suposatuko dugu:

- Masa guztiak (I) kalitatea du, eta homogeneoa da.
- Igarotze- edo txandaketa-denbora 12 urtekoa da.
- 3 urtean behin egiten dira mozketak.
- Mozketarako ezarritako diametroa 45 cm da.
- Masako oinek bolumen unitario bera dute klase diametrikoko jakin baterako.
- Helburu bati jarraikiz antolatu nahi da, taulan adierazten den banaketa lortzeko xedez.

Klas e dia metr ikoa (cm)	Oin kopurua/ha		Bolumen unitarioa m^3 /oina
	Helburu dugun banaketa	Hasierako banaketa	
10	340	340	0,04
15	226	89	0,08
20	133	76	0,17
25	58	48	0,30
30	25	8	0,50
35	11	3	0,75
40	5	2	1,00
45	2	3	1,50

1. Zehaztu zenbat bakanketa-tarte osatuko diren basoan.
2. Zehaztu bakanketa-tarteen azalera teorikoa (kabida).

2. ariketa

Lurzati batean ekidoen simaurra jarri nahi da, 180.000 kilo simaur hektarea bakoitzeko, hain zuzen. Kalkulatu zenbat NPK ongarri-unitate emanen dituen simaurrak hektareako, eta zenbatetsi nitrogeno horretatik zenbat izanen den benetan erabilgarria laborearentzat lehen urtean.

Ekidoen simaur freskoaren batez besteko konposizioa: Gutxi gorabehera, tona bakoitzeko (1.000 kg), zaldi-simaurrak hau ematen du:

Nitrogenoa (N): 5 kg/Tm


Fosforoa (P_2O_5): 3 kg/Tm

Potasioa (K_2O): 6 kg/Tm

Nitrogenoaren erabilera-koefizientea (CUN): Ekidoen edo zaldien simaurretik, **nitrogenoaren % 10etik 25era bitartean soilik** aprobetxatu daiteke lehen urtean, mineralizazioa geldoa baita.

Lehen urterako, batez besteko eskuragarritasuna **% 20** dela joko dugu.

3. ariketa



Mapa hau 1:5.000 eskalan dago

1. Kalkulatu A eta B puntuen arteko distantzia laburtua.
2. Kalkulatu bi puntuen arteko distantzia geometrikoa, jakinik B puntuak hurbilen dituen goiko eta beheko sestra-kurbak distantzia berera daudela.
3. Kalkulatu A eta B puntuaren arteko malda (%).

4. ariketa

Haragitarako behia, edoskialdian (2. hilabetea), bazka mugatuz, ad libitum zereal-lastoz, garagarrez eta soja-opilez elikatua.

Beharrak: **7,7 UFL, 720 g PDI, 72 g Ca, 43 g P, 15,2 ULB.**

Kalkulatu 11 kg belar onduren nutrizio-ekarpena (% 85 materia lehorra). Beharrak beteko dira, edo beste nutriente batzuk gehitu beharko ditut?

Elikagai bakoitzaren nutrizio-ekarpena:

Elikagaiak	UFL	PDI N	PDIE	Ca	P	ULB
Belar ondua	0,63	55	69	5,5	3 1	1,31
Lastoa	0,44	24	46	3,5	1	1,70
Garagarra	1,16	79	102	0,9	4	-
Soja-opila	1,18	388	268	3,3	7,5	-